UDALEKO AUZOZAINTZA SARE PUBLIKO ETA KOMUNITARIOA SENDOTU ETA ZABALTZEKO ZERBITZUA

-BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA –

1. KONTRATUAREN XEDEA

Baldintza Tekniko hauek arautzen duten kontratuaren xedea da Hernaniko Udalak, Zerbitzu Sozial sailaren bidez, martxan duen “Auzozaintza, sare publiko-komunitarioa sendotzeko eta zabaltzeko proiektua” gauzatzeko zerbitzua ematea.

Zehazki, proiektuaren helburua nagusia da baliabide gutxi dituzten eta hurbileko senide edo inguruko pertsonen laguntza jasotzen ez duten 65 urtetik gorako Hernaniko herritarren behar sozial eta psikikoei erantzuteko esku-hartze sozio hezitzaile eta komunitarioa aurrera eramatea.

Horretarako, bakardade egoera zaurgarrian dauden pertsonak detektatu, beren beharrak eta motibazioak ulertu eta horiei egokitutako plan pertsonalizatu eta progresiboak jarriko dira martxan, komunitateko gainontzeko kideekin harremana sustatuz, Udalak zein herriko eragileek eskaintzen dituzten baliabide eta zerbitzuen inguruko informazioa eskainiz (herriko kultura eta kirol eskaintza, bertako elkarteak eta zerbitzu publikoak azalduz) eta hauetan parte hartzea hauspotuz, etorkizunean bere bizitza komunitatean modu autonomoan garatu dezan.

Erabiliko den esku-hartze eredua da berezitasun nagusia, izan ere, babesgabetasun egoerei aurre hartuko zaie herritarrekin elkarlanean. Hortaz, beharrezkoa izango da herriko eragile eta norbanakoen parte- hartzea zaintza sareak sortu eta bakardade egoerak detektatu eta lantzeko, besteak beste, “Auzozain” figuraren bidez.” Auzozainek”, hain zuzen, bakardade egoeran egon daitezkeen pertsonen berri edo jadanik proiektuan parte hartzen dutenengan sor daitezkeen ezohiko egoeren berri emango dute eta, gainera, proiektuan parte hartzen dutenekin eguneroko jarduera ezberdinak egiteko aukera izango dute.

2. ZERBITZUAREN HELBURUAK

“Auzozaintza, zaintza sare publiko-komunitarioa sendotu eta zabaltzeko proiektua” gauzatzeko zerbitzua ematean lortu nahi diren helburu zehatzak honakoak dira:

1. Hernanin hautazkoa ez den bakardade egoera zaurgarrian dauden 65 urtetik gorako pertsonen

detekzio goiztiarra egitea eta beren behar sozial eta psikikoak identifikatzea.

2. Hernanin hautazkoa ez den bakardade egoera zaurgarrian dauden 65 urtetik gorako pertsonen egoera soziodemografikoa ezagutzea (Hernanik adinekoentzat dituen tokiko baliabideak ezagutzea, adineko zaurgarriak detektatzeko eragileak identifikatzea -auzozain rola izango dutenak-, sare komunitarioen dinamikak ezagutzea eta hautazkoa ez den bakardadearen inguruan herritarren ikuspuntua jasotzea).
3. Komunitatea indartzea eta aktibatzea, herriko eragile eta bizilagunen parte-hartzea sustatzea eta elkarlana bultzatzea, besteak beste, auzozain figuraren bidez (zaintza sare informala eta formala aktibatzea edota indartzea, hautazkoa ez den bakardade egoera zaurgarrian dauden adineko pertsonak babesteko, eta zaintzen inguruan komunitatea sentsibilizatzea).

4. Hernanin hautazkoa ez den bakardade egoera zaurgarrian dauden 65 urtetik gorako pertsonen inklusio bideak irekitzea eta pertsona horiek komunitatera txertatzea.

5. Komunitatearen aktibazioari esker, Hernaniko Zaintza Ekosistema aktibatzea eta garatzea, koordinazio sozio-sanitarioa hobetuz eta elkarlan publiko-komunitarioa sustatuz.

6. Bakardade ez hautatuak azkartu ditzakeen narriadura prozesuak (osasun fisiko eta psikologikoa, harreman sozialak…) eta gizarte bazterketa eta mendekotasun egoerak ekiditea edo atzeratzea.

7. Hernanin zahartzaro aktiboa, parte-hartze soziala eta inklusio komunitarioa sustatzea.

8. Hernanin hautazkoa ez den bakardade egoera zaurgarrian dauden 65 urtetik gorako pertsonen bizi-kalitatea eta zaintza sareak hobetzea, bakardade sentsazioa murriztuz, sare-sozialak indartuz, komunitateko baliabideetara konektatuz eta ahalduntzea bermatuz.

2.1.- ERABILTZAILEEN PROFILA

Oro har, 65 urtetik gorako pertsonak hartuko dute parte proiektua. Hala eta guztiz ere, lehentasuna izango dute 75 urtetik gorako profilek. Hauek izango dira proiektuan parte-hartzeko baldintza orokorrak.

2.2.1.- 65 urte

2.2.2.- Autonomo izatea edo proiektua eragozten ez duen mendekotasun gradua izatea

2.2.3.- Bakarrik bizitzea

2.2.4.- Bakardade egoeran egotea

Hala eta guztiz ere, salbuespenak emango dira proiektuaren garapenean auzoetan

detektatzen diren profilekin edo bestelako eragileak deribazioa egiten dutenean. Kasu hauetan, profila gizarte langile errefererentearekin kontrastatuko da egoera eta honek markatuko ditu irizpideak.

3. ZEHAR LERROAK

Inklusioa, genero berdintasuna eta euskara izango dira zerbitzuaren zehar-lerro nagusiak, eta udal kontratu arduradunak zehaztutako moduan eta ezarritako irizpideen arabera garatuko dira.

Zehar-lerroak zerbitzuaren fase guztietan landuko dira: diseinuan, plangintzan, esku-hartzean eta ebaluazioan txertatuko dira. Gainera, kontuan hartu beharko dira horien inguruan Hernaniko Udalak garatu ditzaken planak, protokoloak etab.

4. ZERBITZUKO LANTALDEA

Esleipendunak zerbitzua era egokian eskaini ahal izateko eta ezarritako helburuak betetzeko beharrezko formakuntza eta eskarmentua duten giza baliabideak atxiki behar ditu kontratura. Zehazki, adinekoen, bakardadearen eta garapen komunitarioaren inguruko ezagutza izan beharko dute.

Gutxienez, hauek izango dira kontratura atxikitu beharreko giza baliabideak:

- Bi gizarte hezitzaile, lanaldi osoan.
- Gizarte hezitzaile bat %90ean eta %10ean koordinazio lanak.

Giza baliabide horiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Gizarte Hezkuntzako, Gizarte Laneko, Soziologiako, Psikologiako edo Pedagogiako unibertsitate gradua izatea
- Euskarako Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 maila (3. Hizkuntza eskakizuna, EGA titulua edo horien baliokidea)

Esleipendunak bermatuko du, sor daitezkeen ordezkapenetan ere, langile berriek titularraren baldintzak beteko dituztela. Halaber, hasierako pertsonalean edozein aldaketa egiteko, Udalak oniritzia eman beharko du.

Horrez gain, Udalarekin harremanak izateko eta behar den informazioa emateko, ordezkari arduradun bat izendatuko da (koordinatzaile teknikoa edo hezitzaileren bat izan daiteke). Ordezkari arduradun horrek, gai teknikoei eta gai administratiboei irtenbidea aurkitzeko ahalmena izango du, eta enpresak adierazitako komunikazio sistemaren bidez uneoro erraz aurkitzeko moduan egon beharko du.

5. EKITE EREMUA

Hernaniko Udalak Burujabetzen etxean duen bulegoan oinarrizko ekipamendua jarriko du esleipendunaren eskura (altzariak eta oinarrizko materiala). Argindarra, ura, inprimagailua eta dagoen sareko hartunean Interneteko konexioa Udalaren kontura izango dira. Telefonoa, ordenagailuak, eta zerbitzua emateko beharrezkoak diren bestelako informatika baliabideak, berriz, esleipendunak berak jarri beharko ditu.

Esleipena hastean, Udalak baliabide horien funtzionamendu zuzena bermatuko du, baina mantentzea esleipendunak egingo du esleipenak irauten duen bitartean, eta bulego materialaren horniketaz eta bulegoaren eta ekipamenduaren erabilera zuzenaz ere esleipenduna arduratuko da.

Dena den, proiektua komunitatean garatuko da.

Hautazkoa ez den bakardade egoera zaurgarrian dauden pertsonak detektatutakoan, hezitzailea beraiekin jarriko da harremanetan, eta gizarte langile erreferentearekin kontrastatu ondoren, beren beharrei eta motibazioei egokitutako plan pertsonalizatu eta progresiboak diseinatu eta osatuko dira, herriko eragile eta bizilagunekin harremanak sustatzeko.

Horrela, proiektuaren gauzatzean hiru lan-eremu bereizten dira: arreta zuzena, zerbitzuaren eremu komunitarioa eta zeharkako arreta.

Arreta zuzena:

Hautazkoa ez den bakardade egoera zaurgarrian dagoen pertsonari, oraindik autonomia baldin badu, akonpainamendua eskainiko zaio, banaka zein taldekoa, bere nahi, behar eta motibazioen arabera, bakardade egoerak gainditzeko eta baliozko zahartzea bizi ahal izateko baldintzak eraikitzeko.

Beti ere, pertsona bere inguru naturalean eta bere komunitatean zaindua izateko aukera landuz.

Arreta zuzena Hernaniko Udalak esleipendunaren eskura jarritako bulegotik kanpo emango da, Hernaniko herriak eskaintzen dituen baliabideak aprobetxatuz.

Eremu komunitarioa:

Horrez gain, hautazkoa ez den bakardade egoera zaurgarrian dauden pertsonen inklusio komunitarioa sustatzeko, herritarrak sentsibilizatu eta eragile eta agente desberdinen inplikazioa eta konpromezua bilatu behar dira.

Zeharkako arreta:

Arreta zuzena eta komunitarioa eskaintzeaz gain, hezitzaileek planaren jarraipena eta ebaluazioa egingo dute modu jarraian. Horrekin lotuta, herriko eta eskualdeko eragileekin zein Hernaniko Udaleko sail eta zerbitzuekin koordinatuko dira. Bereziki, hezitzaileak Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozial saileko teknikariekin koordinatuko dira, esku-hartzeak adosteko, planifikatzeko, jarraipenak egiteko eta ebaluatzeko.

6. EGIN BEHARREKO LANAK ETA EGINKIZUNAK

Esan bezala, proiektuaren gauzatze zerbitzua bi atal nagusitan bana genezake:

Esku-hartze sozio-hezitzaile zerbitzua:

Zerbitzu honen baitan, besteak beste, hautazkoa ez den bakardade egoera zaurgarrian egon daitezkeen 65 urtetik gorako pertsonak identifikatuko dira eta proiektuaren berri emango zaie, hala nahi badute, beraien beharrak eta interesak ezagutu eta esku-hartzea proposatzeko.

Proiektuan parte hartu nahi duten pertsonen esku-hartzea eta hurbilketa plana diseinatuko dira eta auzozainen deribazio estrategia planteatuko da.

Era berean, hautazkoa ez den bakardade egoera zaurgarrian dauden 65 urtetik gorako pertsonenganako hurbilketa plana gauzatuko da, baita horiekin aliantza prozesua ere, egoera baloratu ahal izateko.

Oro har, bakarka zein taldeka esku-hartze sozio-hezitzailea gauzatuko da. Beharrezkoa izatekotan, bestelako baliabideekin (Etxeko Zaintza Zerbitzua, adibidez) koordinatuko dute esku-hartzea, betiere gizarte langile erreferenteak pertsonaren bizi-planean horrela jasota baldin badauka.

Komunitatea aktibatzeko zerbitzua:

Zerbitzu honen baitan, besteak beste, proiektuarekiko komunitatearen inplikazioa lortzeko administrazioekin, herriko osasun zentroarekin eta herri eragileekin batera lan estrategiak, koordinazio eremuak eta parte-hartze prozesuak sortu, bultzatu eta indartuko dira.

Horretarako lantalde motorra sortuko da, eta bertako partaide izango dira kontratuari atxikitako giza baliabideak, udal kontratuaren arduradunarekin batera.

Hernaniko aktibo publiko-komunitarioak (zerbitzu publikoak, ekipamendu publikoak, auzo elkarteak,

kultur eragileak, aisialdi taldeak, eragile sozialak, komertzio txikiak, farmaziak…) identifikatu eta zaintza sare publiko-komunitarioko parte izateko proposamenak landuko dira. Edonola ere, eragile edo entitate horiez gain, zaintza sareko parte izan nahi duten herritarrekin ere saretzeko sentsibilizazio lanak eta auzozainaren figura landuko dira.

Zerbitzu horiek emateko, aurretik aipatutako koordinatzaile teknikoaren eta hezitzaileen funtzioak eta eginkizunak zehaztuko dira jarraian.

Koordinatzaile teknikoaren funtzioa eta eginkizunak:

Koordinatzaile teknikoak lantaldearen koordinazioaren ardura izango du. Hezitzaileei laguntza teknikoa emango die, eta etengabeko hausnarketa eta segimendua ahalbidetuko ditu, eguneroko lanari ikuspegi berriak emanez. Orientazioa eta bide-laguntza emango die hezitzaileei, beraien lana erraztuz.

Honako hauek izango dira bere eginkizun nagusiak:

- Zerbitzua funtsatu eta beharren ebaluazioa bideratu.
- Hezitzaileen hasierako eta etengabeko prestakuntzan lagundu (hezitzaileen heziketa beharrak auteman eta hau planifikatuz).
- Esku-hartzearen analisi orokorra gidatu.
- Hezitzaile-taldea dinamizatu.
- Esku-hartzearen jarraipena egin.
- Auzozaintza proiektua koordinatzen duen udal teknikariarekin koordinatu, proiektuaren jarraipena, balorazioa eta beharrezko egokitzapenak bermatzeko.

Gizarte Hezitzaileen funtzio eta eginkizunak:

- Beharrak ebaluatzeko prozesuan gauzatu.
- Zuzeneko akonpainamendu prozesuak egin.
- Parte-hartzea sustatu.
- Hautazkoa ez den bakardadearen inguruko prebentzioa eta sentsibilizazio lanak burutu.
- Ideia positiboak sortzen lagundu komunitatean eta inguruan.
- Beste eragileei proiektuan parte hartzen lagundu.

- Zerbitzuaren zeharkako lerroak (inklusioa, berdintasuna eta euskara) sendotu.
- Heziketa prozesuak aktibatu esku-hartzean garatzeko.
- Beharretan eta eskaeretan oinarritutako programazioa garatu.
- Proiektuaren presentzia beste espazioetan (kalea, lokalak...) garatu.
- Ikuspegi komunitarioa txertatu zerbitzuan garatzen diren jarduera guztietan.
- Zerbitzuaren komunikazio-beharretan eta zabalkundean lagundu.
- Sare lana bultzatu, eraiki eta sustatu.
- Ekintzak programatu, koordinatu eta dinamizatu.
- Proiektua komunitatean eta lurraldean txertatzen lagundu eta komunitateko eragile izan.
- Programa Hernaniko auzoetara hedatzeko egutegia aurkeztea
- Herriko beste baliabide eta eragileekin elkarlanean aritu.
- Udaleko beste sailekin koordinatu.
- Proiektuaren jarraipena egiteko sortzen diren organoetan parte hartu.
- Zuzeneko esku-hartzeak antolatu eta gauzatu.
- Datuak eta informazioa kudeatu.
- Baliabide materialak kudeatu.
- Proiektuaren garapen teknikoan eta antolakuntzan parte hartu.
- Proiektuaren planifikazioan eta diseinuan parte hartu.
- Programazioa eta eguneroko jarduera planifikatu eta dinamizatu.
- Zerbitzuaren ebaluazioan parte hartu.
- Herritar eta erabiltzaileen iritzia jaso.
- Zerbitzuko erabiltzaileen datuak jaso, sexuagatik desagregatuak.
- Programan parte hartzen duten pertsonen zerrenda eguneratuak mantentzea eta dagozkien udal-teknikekin partekatzea
- Erabilitako eraikin, lokal… lekuak behar bezala zaindu.
- Auzozaintza proiektua garatzeko udaleko teknikari eta Auzozaintzako teknikarien artean egiten diren elkarlan bilerak egin. Kasu bakoitza koordinatzeko behar diren bilerak egingo dira, eta urtean gutxienez bi egingo dira erabiltzaile bakoitzaren kasua koordinatzeko. Gainera, talde/auzo bakoitza koordinatzeko bilerak egingo dira hiru hilean behin. Beharrezkoa den maiztasunarekin, proiektu edo ekintza zehatzen jarraipena egingo da programaren barruan, udaleko sailetako teknikari desberdinekin koordinatuta.
- Koordinazio sozio-sanitarioa hobetzeko, hilabetean behin, udaleko arduradunaren, Auzozaintzako teknikariaren eta osasun zerbitzuko profesionalen arteko koordinazio bilerak

gauzatu (gutxienez urtean 12 bilera).

- Elkarlan publiko komunitarioa sustatuko duen adineko mahaiaren sorreran parte aktibo izan, non udalak zein inpaktu handiko eragile formal, zein informalek parte hartuko duten.
- Auzosare informazio sistemako aplikazioaren erabilera sustatzea eta datu eguneratuz hornitzea eta jarraipena gauzatzea.
- Esku-hartzea aktibatuko den auzo berrietako dinamika komunitarioak ezagutu diagnostiko komunitario biziaren bidez.
- Adineko zaurgarriak identifikatzeko, esku-hartzen ari garen auzoetan, eragile klabeak identifikatu, auzozain rola izango dutenak alegia.
- Zaintza sare informala aktibatzeko, auzozain pertsonalen kaptazioa egin.

- Adineko pertsonen aktibazio komunitarioa sustatzeko, auzozain dinamizatzaileek aktibatuko dituzten ekintzen sorrera.
- Zaintza-sare formala indartzen jarraitzeko inpaktu handiko eragile formal zein informalekin prestakuntza saioak egin.
- Zaintzen inguruan komunitatea sentsibilizatzeko 3 hilabetean behin, ekintza komunitario bat egin edota herriko komunikabideetan atera.
- Bakarkako eta taldeko esku-hartzea, zein aktibazio komunitarioa, Hernaniko auzoetara zabaldu.
- Auzo berrietan, auzo bakoitzeko sentsibilizazio saio bat eskaintzea auzozainak identifikatzeko.
- Pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko martxan dauden esku-hartzeak gauzatu.
- Zaurgarritasun egoeran dauden gutxienez 20 pertsona berrirekin urtero esku-hartzen hasi.

7. EGUTEGIA ETA ORDUTEGIAK

Proiektua urte osoan martxan egongo da, betiere langileen jai egunak eta oporrak errespetatuz, eta astelehenetik ostiralera eskainiko da, goiz eta arratsaldez, une bakoitzeko beharretara eta ekintza eta esku-hartzeetara egokituta.

Asteburu edo jaiegunean jardunaldi edota ekimen berezietan parte hartzeko premia dagoenean, egutegia horretara egokituko da.

8. EXEKUZIOAREN KONTROLA

- Esleipendunak kontratuaren udal arduradunarekin astero koordinazio eta jarraipen bilera egingo du.
- Erabiltzaile bakoitzarekin landu beharreko fitxa erreferentziazko gizarte langilearekin konpartitu

eta eguneratuko da, eta bertan, honako informazio istorikoa eta eguneratua jasoko da:

- Banakako eskuhartzeri buruzkoa
- Taldekako eskuhartzeari buruzkoa
- Baliabide komunitarioetako parte hartzeari buruzkoa
- Bestelako informazio esanguratsua

- Horrez gain, esleipendunak proiektua gauzatzeko zerbitzuaren inguruko memoria aurkeztuko du urtero, urte amaieran, eta gutxienez alderdi hauek aztertuko dira bertan:
  - Planifikatutako jardueren eragina kuantitatiboki eta kualitatiboki.
  - Zerbitzuaren hartzaile kopurua sexuagatik desagregatuta.
  - Ekintza guztien balorazio fitxa
  - Zerbitzuaren hartzaileen asetasun maila.
  - Proiektuan parte hartu duten herri eragileen kopurua
  - Eragileek egindako hobekuntza proposamenak
  - Profesionalek proiektua hobetzeko egindako proposamenak